Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2025-06-05
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2025-06-12
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00061/2025 - Data/Fecha: 2025-06-12
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-06-12
GZko 15.gaia onartuta - Aprobado, asunto 15) de OD



**Bizkaiko Foru Aldundiko FORU DEKRETUA**. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2025eko ekitaldian kultur proiektuak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak besteak beste helburu hauek dituen kultura-politika planteatzen du: Bizkaian kalitateko kultura-eskaintza bat sustatzea, Bizkaiko kultur-eragile pribatu eta publikoei laguntza emateko estrategiak sustatzea, eta Bizkaiarentzat kultura-interesa duten proiektuak ekonomikoki laguntzea.

Horretarako, urtero, dirulaguntzen lerro batzuk ezartzen ditu, sektore honetan lan egiten duten Bizkaiko elkarte, enpresa eta tokiko entitate batzuekin lankidetzan aritzea eta haiei laguntza ematea xede dutenak, jarduera kulturala garatu eta sustatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak emateko.

Azken arlo horri heldu nahi dio deialdi honek, gure Lurralde Historikoan garatzen diren kultur proiektuak sustatzera bideratuta baitago.

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio proposatutako xedapen orokorraren bidez arautu nahi den gaiari buruzko eskumena, hala ematen baitu aditzera azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia**, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a la realización de proyectos culturales en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el ejercicio 2025.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia plantea una política cultural que tiene entre otros objetivos el de fomentar una oferta cultural de calidad en Bizkaia, impulsar estrategias de apoyo a los agentes culturales de Bizkaia, tanto privados como públicos, y apoyar económicamente los proyectos que tengan un interés cultural para Bizkaia.

Para ello cuenta anualmente con una serie de líneas subvencionales que tienen por objeto colaborar y apoyar a asociaciones, empresas y entidades locales de Bizkaia que trabajan en este sector, con el fin de dotarlas de los recursos económicos necesarios para el desarrollo y fomento de la actividad cultural.

A este último ámbito responde la presente convocatoria, dirigida a apoyar los proyectos culturales que se desarrollan en nuestro Territorio Histórico.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de lo dispuesto en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que atribuye

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

buruzkoak. Lege horren 7.a)13. artikuluan, zehazki, eskumen esklusiboa ematen zaie lurraldeoi, besteak beste, lurraldean interesekoak diren kultura-organismoak sortu eta mantentzeko arloan.

a estos últimos, en su artículo 7.a)13, competencia exclusiva entre otras, para la creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del Territorio Histórico.

Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duena) sail honi ematen dio kulturari lotutako proiektuak eta Bizkaiarentzat interesekoak direnak sustatzeko eskumena.

En este sentido, Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia atribuye a este departamento la competencia para promover proyectos relativos a cultura y de interés para Bizkaia.

Eskumen hori gauzatzeko, dekretu honen bidez beharrezko bitartekoak bideratzen dira, bizkaitarrentzat interesgarria izan daitekeen kultur eskaintza zabal bat, lurralde mailan orekatua dena, izateko. Helburu hori lortzeko, berrikuntza eta diziplinartekotasuna eta diruz lagundutako proiektuetan euskara erabiltzea baloratuko da.

En el ejercicio de dicha competencia, el presente decreto arbitra los medios necesarios para contar con una oferta cultural que pueda ser de interés para la ciudadanía de Bizkaia, variada y equilibrada territorialmente, valorándose aspectos como la innovación e interdisciplinariedad y la presencia del euskera en los proyectos subvencionados.

Dekretu hau sei kapitulutan egituratu da. Lehenengo kapituluan hurrengo bost kapituluen xedapen erkideak ezartzen dira, eta kapitulu horietan, hain zuzen ere, araudi honen lau xedeak zehazten dira:

Este decreto se ha estructurado en seis capítulos. En el primer capítulo se establecen las disposiciones comunes a los cinco siguientes capítulos, en los que se delimitan respectivamente cada uno de los cuatro objetos de esta normativa:

Xedapen erkideak (I. Kapitulua).

Disposiciones Comunes (Capítulo I).

Garrantzi bereziko kultur proiektuetarako dirulaguntzak (II. Kapitulua).

Subvenciones a proyectos culturales de especial trascendencia (Capítulo II).

Kultur intereseko proiektuetarako dirulaguntzak (III. kapitulua).

Subvenciones a proyectos de interés cultural (Capítulo III).

Enpresen kultur proiektuetarako dirulaguntzak (IV. Kapitulua).

Subvenciones a proyectos culturales de empresas (Capítulo IV).

"Bizkaiko Jaialdiak"- Bizkaiko jaialdietarako dirulaguntzak (V. Kapitulua).

Subvenciones a festivales de Bizkaia - "Bizkaiko Jaialdiak" (Capítulo V).

Garrantzi berezia duten praktika garaikideen erakusketetarako dirulaguntzak (VI. Kapitulua).

Subvenciones a exposiciones de prácticas artísticas contemporáneas de especial relevancia (Capítulo VI).

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna,

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxezkien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Beste alde batetik, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzen ditu, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Genero-eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.

3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.

2. Informe jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Dirulaguntzen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea.*

Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2025eko ekitaldian kultur proiektuak egiteko, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

## Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

4. Informe de control económico.

5. Informe de legalidad.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los Diputados Forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un sólo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de subvenciones.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, destinadas a la realización de proyectos culturales en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el ejercicio 2025.

## Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion dirulaguntzak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskabideak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

1. Se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN 2025EKO EKITALDIAN ZEHAR KULTUR PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LA REALIZACIÓN DE PROYECTOS CULTURALES EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA DURANTE EL EJERCICIO 2025.

I. KAPITULUA

Xedapen erkideak

1. *oinarria. Dirulaguntzaren xedea.*

1. Foru dekretu honekin bat etorrita, 2025. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen diren proiektu hauek diruz lagunduko dira:

a) Garrantzi bereziko kultur proiektuak.

b) Interes kulturaleko proiektuak.

c) Enpresen kultur proiektuak.

d) "Bizkaiko Jaialdiak"- Bizkaiko jaialdiak

e) Garrantzi berezia duten praktika garaikideen erakusketetarako dirulaguntzak.

Dirulaguntzaren eskabidearen xede den proiektua kategoria horietako baten babesean egin beharko da. Kategoriak baztertzaileak izango dira elkarren artean.

2. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Ekoizpen artistikoko eta ikuskizun eszenikoetako proiektuak.

b) Enpresek egindako, ikus-entzunezko ekoizpen eta sustapeneko proiektuak eta ikuskizun eszenikoen sustapeneko proiektuak.

c) Informatika arloari bakarrik lotutako proiektuak.

d) Bazkideentzako baino ez diren proiektuak.

CAPÍTULO I

Disposiciones comunes

Base1. *Objeto de la subvención.*

1. Serán objeto de subvención con arreglo al presente decreto foral los siguientes proyectos que se desarrollen en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el año 2025:

a) Proyectos culturales de especial trascendencia.

b) Proyectos de interés cultural.

c) Proyectos culturales de empresas.

d) Festivales de Bizkaia - “Bizkaiko Jaialdiak”.

e) Exposiciones de prácticas artísticas contemporáneas de especial relevancia.

El proyecto que motive una solicitud de subvención, sólo podrá hacerlo al amparo de una de estas categorías, siendo excluyentes entre sí.

2. Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Proyectos de producción artística y de espectáculos escénicos.

b) Proyectos de producción y promoción audiovisual y de promoción de espectáculos escénicos realizados por empresas.

c) Proyectos vinculados exclusivamente al ámbito informático.

d) Proyectos destinados exclusivamente a socias y socios.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

e) Modari buruzko proiektuak.

f) Helburu nagusitzat emakumeak eta genero berdintasuna sustatzea duten proiektuak.

g) Honako hauei buruzko proiektuak: Kabalgata, San Juan Jaiak eta Olentzero.

h) Arlo hauei erreferentzia egiten dieten proiektuak: hezkuntza, umeak, gazteria, adinekoak (publikoak sortzea helburu duten proiektuak izan ezik), gizarte-ekintza, laguntza sozio-sanitarioa, ingurumena, turismoa, nekazaritza, astia eta aisialdia edo kirolak, gizarte integrazioa eta gizarteratzea, moldatzeko ezintasuna eta gizarte baztertzea, herritarren arteko adiskidetzea, komunitate-sustapena edo tauromakia.

i) Kultura ondareari buruzko proiektuak.

j) Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egin beharreko proiektuak.

k) Jai egitarauak.

l) Euskara sustatzeko programak.

m) Irrati eta telebistako programak, baita irratiko eta telebistako emanaldiekin zerikusia duten jarduerak ere.

n) Ikasketa-bidaiak, txangoak, bisitak, trukeak edo antzekoak.

ñ) Ikastaroak edo antzekoak, nekazaritza edo artisautza azokak eta sukaldaritza txapelketak.

o) Itzulpenak.

p) 2025eko ekitaldian euskarazko aldizkako argitalpenak argitaratzen dituzten merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, banakako enpresaburuei, profesionalei eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei dirulaguntzak ematera zuzendutako Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuaren babesean diruz lagundu daitezkeen argitalpenak.

e) Proyectos relativos al mundo de la moda.

f) Proyectos que tengan como objeto principal la promoción de la mujer y la igualdad de género.

g) Aquellos proyectos que hagan referencia a: Cabalgatas, Fiestas de San Juan y Olentzero.

h) Proyectos que hagan referencia a: educación, infancia, juventud, y tercera edad —excepto los que tengan como objetivo la generación de públicos—, acción social, asistencia socio-sanitaria, medio ambiente, turismo, agricultura, ocio y tiempo libre, integración y reinserción social, inadaptación y marginación social, confraternización ciudadana, promoción comunitaria, deportes o tauromaquia.

i) Proyectos referentes a patrimonio cultural.

j) Proyectos a realizar fuera del Territorio Histórico de Bizkaia.

k) Programas festivos.

l) Programas de promoción del euskera.

m) Programas de radio y televisión, así como actividades vinculadas a emisiones radiofónicas y televisivas.

n) Viajes de estudios, excursiones, visitas, intercambios o similares.

ñ) Cursillos o similares, ferias agrícolas, de artesanía y concursos gastronómicos.

o) Traducciones.

p) Publicaciones que pudieran ser objeto de subvención al amparo del decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia destinado a subvencionar a las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas empresarias individuales y/o profesionales y a las personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro, que editen publicaciones periódicas en euskera durante el ejercicio de 2025.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

q) Edozein motatako diskriminazioa egiten duten jarduerak edo proiektuak, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

r) VI Kapituluko proiektuei dagokienez, aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek egindako proiektuen ondoriozkoak diren erakusketei buruzko proiektuak:

1) Udaletako plastiko eta ikus-arteen tailerretan parte hartzen dituzten partaideenak.

2) Akademia pribatuenak.

3) Ikastetxeenak eta irakaskuntza-zentroenak.

s) Dirulaguntzen kategoria bakoitza arautzen duten xedapen espezifikoetan ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten proiektuak.

3. Diruz laguntzeko gastuak izango dira, baldin eta indarrean dagoen araudiaren arabera ondo justifikatuta badaude, diruz laguntzen den jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, guztiz beharrezkoak badira eta epe barruan egiten badira, baina dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, dirulaguntza eskatu duen eskatzailearen izenean dauden fakturen bidez egiaztatutako transakzio ekonomiko bat dakartenak baino ez dira onartuko, eta beste batzuek zuzenean ordainduko dituztenak ez dira onartuko.

Gastu orokorrak eta/edo zeharkakoak (egituraren kudeaketa, lokalen mantentzea, hornidurak...) diruz lagundu ahal izango dira, udalentzat, udal-erakunde autonomoentzat eta mankomunitateentzat izan ezik, betiere kontzeptu horiengatik guztira aurrekontu araztu osoaren % 10 gainditzen ez bada, eta, nolanahi ere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldiari badagozkio. Zenbateko horrek ez du justifikazio gehigarririk beharko.

q) Actividades o proyectos que incurran en discriminación de cualquier clase, de acuerdo con lo establecido en la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

r) Para los proyectos del Capítulo VI quedarán excluidos aquellos que hagan referencia a exposiciones resultantes de proyectos realizados por:

1.º Las personas participantes en los talleres de artes plásticas y visuales municipales.

2.º Las academias privadas.

3.º Colegios y centros de enseñanza.

s) Proyectos que no cumplan los requisitos establecidos en las disposiciones específicas que regulan cada categoría de subvención.

3. Serán gastos subvencionables aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

Sólo se admitirán como gastos subvencionables, aquellos que supongan una transacción económica constatada con facturas a nombre de la solicitante de la subvención, no siendo aceptados los que vayan a ser abonados directamente por otros.

Los gastos generales y/o indirectos (gestión de la estructura, mantenimiento de los locales, suministros...) serán subvencionables, salvo para ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades de ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia, siempre que la cuantía total por dichos conceptos no supere el 10 % del presupuesto total depurado y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad. Este importe no requerirá una justificación adicional.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4. Ez dira diruz lagundutako gastutzat hartuko:

a) BEZa. Bai eskabidearen aurrekontuan, bai dirulaguntzaren justifikazioarekin aurkeztuko den aurrekontu burutuan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak.

b) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada foru dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.

c) Banku-kontuen interes zordunak.

d) Interesak, errekarguak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak.

e) Prozedura judizialen gastuak.

f) IV. kapituluko dirulaguntzetara aurkezten diren enpresen kasuan, onuradunak merkataritza-eragiketetan izandako gastuak, aplikatu beharreko araudi sektorialean aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu ez direnak, edo, halakorik ezean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritakoa.

g) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluarekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

Udal edo toki-erakunde batek kultura-arloko zerbitzuen kontratu integrala kanpoko enpresa bati esleituta badu, aurkeztutako gastuen aurrekontuaren % 25 kenduko da, beste eskatzaile batzuekin parekatzeko, ez baitira zenbatesten udaleko kultura-arloaren beraren funtzionamenduak eragindako gastuak: langileak, lokalen mantentze-lanak, garbiketa, segurtasuna, komunikazioak eta inbertsioak, etab.

5. Foru-dekretu honen helburua eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz

4. No tendrán la consideración de gastos subvencionables:

a) El IVA. Tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto ejecutado, que se aportará con la justificación de la subvención, deberán figurar los importes de gasto sin IVA.

b) La adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto foral.

c) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

d) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

e) Gastos de procedimientos judiciales.

f) En el caso de las empresas que concurran a las subvenciones del Capítulo IV, los gastos en los que haya incurrido la beneficiaria en sus operaciones comerciales que no se hayan abonado en los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que le sea de aplicación, o, en su defecto, en lo establecido en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

g) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

En el caso de que un ayuntamiento o entidad local tenga adjudicado un contrato integral de servicios de carácter cultural a una empresa externa, se deducirá un 25 % del presupuesto de gastos presentado, a efectos de la equiparación con otras solicitantes, dado que no son estimados los gastos derivados del funcionamiento de la propia área municipal de cultura: personal, mantenimiento de locales, limpieza, seguridad, comunicaciones e inversiones, etc.

5. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las solicitantes, nunca la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

finantzatuko proiektua egiteagatik sortutako gastu guztiak.

2. oinarria. *Onuradunak.*

1. Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzak honako hauek jaso ditzakete (baldin eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan jasotako ezein egoeratan ez badaude):

a) Elkarteak, fundazio pribatuak eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 4ko 61/2000 Dekretuak araututako gizarte-ekimeneko kooperatibak. Erakunde horiek baldintza hauek bete behar dituzte:

1) Sozietatearen egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

2) Dagokion erregistroan inskribatuta egotea.

3) Irabazteko asmorik gabe eratuak izatea.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, udal erakunde autonomiadunak eta mankomunitateak.

Erakunde horiek VI. Kapituluko dirulaguntzen onuradun izateko eskakizuna egiten badute, baldintza hauek bete beharko dituzte, nahitaez:

1) Erakusketa-areto gisa erabiltzeko kultur ekipamenduak edukitzea, udal jabetzakoak edo itundutakoak, betiere ekipamenduok erabilera horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen badituzte.

2) Halako ekipamenduetarako ezarrita dauden segurtasun-neurriak betetzea.

3) Aretoak arduradun bat izatea.

4) Aretoa zainduta egotea, jendearentzat zabalik dagoen orduetan.

de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución del proyecto.

Base 2. *Beneficiarias.*

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas en el presente decreto, las siguientes personas, siempre que no estén incursas en las causas del art. 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo:

a) Asociaciones, fundaciones privadas y las cooperativas de iniciativa social reguladas por el Decreto 61/2000, de 4 de abril del Gobierno Vasco. Todas estas entidades deberán reunir los siguientes requisitos:

1.º Tener el domicilio social en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2.º Encontrarse inscritas en el registro correspondiente.

3.º Estar constituidas sin ánimo de lucro.

b) Los ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades de ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia.

En el caso de las entidades de esta naturaleza que se presenten a las subvenciones reguladas en el Capítulo VI, deberán reunir de manera ineludible los siguientes requisitos:

1.º Contar con equipamientos culturales propios o concertados, destinados a salas de exposiciones, siempre que éstos reúnan las condiciones necesarias para ser destinadas a tal fin.

2.º Cumplir las medidas de seguridad establecidas para este tipo de equipamientos.

3.º Contar con una persona responsable de la sala.

4.º Disponer de vigilancia durante el horario de apertura al público.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5) Egunean gutxienez ere lau orduz irekita egotea jendearentzat (goizez eta/edo arratsaldez).

5.º El horario de apertura al público debe ser de una duración mínima de cuatro horas al día (mañanas y/o tardes).

c) Enpresen kultur proiektuetarako dirulaguntzen (IV. Kapitulua) kategorian parte hartu ahal izango dute, gainera, sozietate anonimoek, erantzukizun mugatuko sozietateek, kooperatiba-sozietateek eta sozietate zibilek (Kode Zibilaren 1669. artikuluan jasotakoak izan ezik), bai eta jarduera profesionalak eta/edo enpresarialak egiten dituzten pertsona fisikoek ere, baldin eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko kausetan sartuta ez badaude eta eskabidea aurkezteko egunean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

c) En las categorías de las subvenciones a proyectos culturales de empresas (Capítulo IV) podrán concurrir las sociedades anónimas, sociedades de responsabilidad limitada, sociedades cooperativas, y las sociedades civiles (excepto las del artículo 1669 del Código Civil) así como las personas físicas que ejerzan actividades profesionales y/o empresariales, que no estando incursas en las causas del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos a fecha de presentación de la solicitud:

1) Egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

1.º Tener el domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2) Halaber, 25.2 oinarriko kultura-arloekin zerikusia duen edozein epigrafetan alta emanda egotea.

2.º Estar dada de alta en cualquiera de los epígrafes relacionados con las áreas culturales que figuran en la base 25.2.

3) Halaber, Foru Administrazioak 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.3 bis merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari lotutako irabazi-asmoa duten pertsona juridiko edota fisiko pribatuek ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

3.º Asimismo, de acuerdo al art. 12.3 bis, de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, para aquellas subvenciones por importe superior a 30.000 euros, las personas jurídicas y/o físicas privadas con ánimo de lucro sujetas a la Ley 3/2004 de 29 de diciembre, por las que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, deberán cumplir con los plazos de pago.

2. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo daude honako hauek:

2. Quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Bizkaiko Foru Aldundia patronatuko kide duten fundazioak, baldin eta Aldundiaren ekarpen ekonomikoa jasotzen badute beren kultur proiektuak kudeatzeko.

a) Las fundaciones en las que la Diputación Foral de Bizkaia sea miembro de su patronato y colabore con aportaciones económicas a la gestión de sus proyectos culturales.

b) Diruz-laguntzeko eskatzen den kultur proiektua antolatzen ez duten eskatzaileak.

b) Aquellas solicitantes que no sean las organizadoras del proyecto cultural para el que se pide la subvención.

c) Ekipamenduen jabetza duten enpresak, baldin eta beren jarduera soilik bada tresna horiek beste batzuei

c) Las empresas propietarias de equipamientos, cuya actividad se limite al arrendamiento de éstos a terceros

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

alokatzea, edozein modalitatetan (ordainketa, takila, eta abar), kultur ekitaldiak egiteko.

en cualquiera de las modalidades (pago, taquilla, etc.), para la realización de eventos culturales.

d) Arau honen xedeari lotutako ekitaldiak antolatu, egin eta kudeatzen dituzten beste enpresa batzuen bitartekari moduan diharduten enpresak.

d) Las empresas que actúan de intermediarias con otras que organizan, desarrollan y gestionan eventos relacionados con el objeto de la presente normativa.

e) Ondasun-erkidegoak.

e) Las comunidades de bienes.

3. Era berean, honako pertsona fisikoak edo juridikoak ezin izango dute dirulaguntzarik jaso:

3. Asimismo, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención aquellas personas físicas o jurídicas:

a) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso izan duten pertsonak, zehapenean ezarritako epean zehar.

a) Las personas que hayan sido objeto de sanción administrativa, laboral o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad.

b) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso izan duten pertsonak, zehapenean ezarritako epean zehar.

b) Las personas que hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

c) Pertsona juridikoak, baldin eta beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

c) Aquellas personas jurídicas, cuyos fines y objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

d)Hala badagokio, sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten berdintasun-planak eta protokoloak eta/edo dokumentuak edukitzeko betebeharra betetzen ez duten pertsona juridikoak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudian ezarritako baldintzetan.

d) En su caso, aquellas personas jurídicas que no cumplan con la obligación de disponer de planes de igualdad y protocolos y/o documentos que recojan las medidas para prevenir y combatir el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y las violencias sexuales en los términos establecidos por la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

Base 3. *Normativa aplicable.*

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan ere.

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV de su Reglamento de desarrollo.

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikuluaren arabera, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2.a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/hasiera

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. Eskabideak aurkezteko epea egutegiko 15 egun baliodunetakoa izango da, foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

2. El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente decreto foral en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarriak definitzen dituzten baldintzak.

3. La presentación de solicitudes supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

3. Aportar ejemplares de mano, carteles, fotografías, publicaciones, material audiovisual e informático, así como cualquier otra documentación de carácter gráfico elaborada para el desarrollo de cada una de las actividades del proyecto, todo ello en formato electrónico, debiendo constar en lugar visible en los mismos, que la actividad ha sido subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia, a cuyos efectos se insertará en éstos los elementos institucionales de ésta en los términos previstos en la letra e) de la base 17 del presente decreto foral. Dicha obligación afecta a las actividades realizadas una vez que ha sido notificada la concesión de la subvención.

17 oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunaren beste betebehar batzuk.*

Base 17. *Otras obligaciones de la beneficiaria de la subvención.*

Onuradunak betebehar hauek ere izango ditu:

La beneficiaria estará igualmente obligada a:

a) Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea Kultur Ekintza Zerbitzuari, egoitzaren bidez.

a) Comunicar por sede al Servicio de Acción Cultural la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

b) Diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipen egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.

b) Facilitar la realización de las funciones o facultades de control, seguimiento e inspección de la actividad subvencionada.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta kultura arloko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).

c) Colaborar con el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte en aquellos supuestos, en los que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al ámbito cultural (estudios, encuestas, datos estadísticos, etc.).

d) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.

d) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los Departamentos Forales de Euskera , Cultura y Deporte y de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

e) Dirulaguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da, hitzez hitz:

e) En todo material editado y en toda comparecencia pública realizada con posterioridad a la concesión, deberá hacerse constar el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia; se utilizarán, para ello, obligatoriamente los elementos establecidos en la imagen corporativa de la Diputación Foral de Bizkaia, incluyendo junto al logotipo la siguiente frase literal:

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

Euskara hutsean garatutako proiektuetan, gainera, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da.

En los proyectos desarrollados íntegramente en euskera, deberá incluirse, además, la imagen del "Txantxangorri del euskera".

f) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea dirulaguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta hedapenean, bai euskarri grafikoan, bai ikus-entzunezko baliabideetan (era guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak, etab.). Halaber, euskara erabili beharko du diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

f) Utilizar las dos lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma Vasca en la publicidad y difusión de la actividad objeto de subvención, tanto en soporte gráfico como en medios audiovisuales (todo tipo de anuncios, carteles, folletos, etc.). Asimismo, deberá utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada, y todo ello de acuerdo con lo establecido en artículo 13 del Decreto Foral 63/2019 de 28 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

g) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen

g) Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.

ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

h) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

h) Velar por que el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

i) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonei buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikuluak.

i) Asumir, en la ejecución del proyecto subvencionado, el uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital, y desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que, en su caso, se genere, todo ello al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

j) Egiaztatzea, hala dagokionean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, betebehar hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da justifikazioarekin batera.

j) Acreditar, cuando proceda, el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres, conforme a lo previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo de 2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva. A estos efectos, se deberá cumplimentar, junto con la justificación, declaración responsable del cumplimiento de esta obligación.

k) Hala badagokio, sexu-askatasunaren eta laneko osotasun moralaren aurkako delituak eta beste jokabide batzuk saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dira, bereziki sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena azpimarratuz, eremu digitalean egindakoak barne. Horretarako, betebehar hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da justifikazioarekin batera.

k) Se deberán promover, en su caso, condiciones de trabajo que eviten la comisión de delitos y otras conductas contra la libertad sexual y la integridad moral en el trabajo, incidiendo especialmente en el acoso sexual y el acoso por razón de sexo, incluidos los cometidos en el ámbito digital. A estos efectos se deberá cumplimentar, junto con la justificación, declaración responsable del cumplimiento de esta obligación.

l) Deialdi honi dagokionez, dirulaguntza foral baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru

l) A los efectos de la presente convocatoria, las beneficiarias de subvención foral quedan obligadas al

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Arauaren 27. artikuluan eta Dirulaguntzen Erregelamenduaren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak.

cumplimiento de los requisitos y prohibiciones regulados en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 y en el artículo 53 del Reglamento de Subvenciones, en materia de subcontratación.

Onartutako azpikontratazioaren gehienezko ehunekoa diruz lagundutako jardueraren % 90 izango da.

El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90 % del importe de la actividad subvencionada.

m) Enpresen, edo enpresa-arloan diharduten elkarte, fundazio pribatuen kasuan, deslokalizaziorik ez egitea, gaia arautzen duen foru-araudian xedatutakoa aplikatuz.

m) En el caso de empresas, asociaciones y fundaciones privadas, que desarrollen actividad en el ámbito empresarial, no incurrir en deslocalización, de conformidad con lo dispuesto en aplicación de lo dispuesto en la normativa foral que regula la materia.

n) Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Dirulaguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

n) Las demás previstas en el art. 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia y en los artículos 54 y siguientes del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia.

18 oinarria. *Itzulketa.*

Base 18. *Reintegro.*

1. Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta aurreko oinarrietan ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez badira edo Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamenduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada, besteak beste:

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en las bases anteriores o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, entre otras:

a) Dirulaguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkutatzen direnean.

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

b) Xedea, jarduera, proiektua edo dirulaguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

c) Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

d) Dirulaguntza nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den dirulaguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak eskabidea egin ondoren.

d) La justificación insuficiente o deficiente conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la subvención no justificada, previo requerimiento por parte del Servicio de Acción Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

e) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.

e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.

f) Enpresen edo enpresa-eremuan diharduten elkarte eta fundazioen kasuan, enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa jaso izana, gaia arautzen duen foru-araudian xedatutakoa aplikatuz.

f) En el caso de empresas y asociaciones o fundaciones que desarrollen actividad en el ámbito empresarial, haber sido objeto de declaración de deslocalización empresarial, en aplicación de lo dispuesto en la normativa foral que regula la materia.

g) Foru dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

g) Incumplir los demás supuestos previstos en el presente decreto foral.

2. Dirulaguntza jaso duen jarduketaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, laguntza itzuli egin beharko da.

2. El exceso de financiación con relación al coste de la actividad subvencionada también constituirá motivo de reintegro.

3. Era berean, emandako dirulaguntza itzuli beharko da, dagokion proportzioan, baldin eta jardueraren amaierako kostua aurrekontuan adierazitakoa baino txikiagoa bada.

3. Igualmente procederá el reintegro de la subvención concedida, que será proporcional, cuando el coste final de la actividad resulte inferior al presupuestado.

4. Dirua itzultzeko prozedura dirulaguntzak arautzen dituen araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

4. El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en la normativa reguladora de subvenciones que resulte de aplicación.

19. oinarria. *Datu pertsonalen babesa.*

Base 19. *Protección de datos de carácter personal.*

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordez aplikatu beharreko gainerako araudia.

Será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

20. oinarria. *Aurrekontuko partida.*

Base 20. *Partida presupuestaria.*

1. Deialdi honetako dirulaguntzak emateko 2025. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:

1. El límite del presupuesto vigente en el año 2025 para la concesión de las subvenciones de la presente convocatoria es el siguiente:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Elkarteak, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak: milioi bat eta hamasei mila (1.016.000,00) euro, 2025eko 0405 G/334104/45100 (2012/0024 proiektua) aurrekontuko partidaren kontura.

b) Udalak, udal erakunde autonomiadunak eta mankomunitateak: laurehun eta hogei mila (420.000,00) euro, 2025eko aurrekontuko 0405 G/334104/43299 (2012/0024 proiektua) aurrekontuko partidaren kontura.

c) Sozietate anonimoek, erantzukizun mugatuko sozietateek, sozietate kooperatiboek eta sozietate zibilek (Kode Zibileko 1669. artikulukoak izan ezik) eta jarduera profesionalak eta/edo enpresarialak egiten dituzten pertsona fisikoek, ehun eta hamazortzi mila (118.000,00) euro, 2025eko aurrekontuko 0405 G/334104/44300 (2012/0024 proiektua) aurrekontuko partidaren kontura.

2. Muga hori era honetara banatuko da:

a) Foru dekretu honen II. kapituluko dirulaguntzen kasuan:

Elkarteentzat, fundazio pribatuentzat eta gizarte-ekimeneko kooperatibentzat: berrehun eta hirurogei mila (260.000,00) euro.

Udalentzat, udal erakunde autonomoentzat eta mankomunitateentzat: ehun eta hirurogeita hamazazpi mila (177.000,00) euro.

b) Foru dekretu honen III. Kapituluko dirulaguntzen kasuan:

Elkarteentzat, fundazio pribatuentzat eta gizarte-ekimeneko kooperatibentzat: zazpiehun eta berrogeita bat mila (741.000,00) euro.

Udalentzat, udal erakunde autonomoentzat eta mankomunitateentzat: ehun eta berrogeita hamabost mila (155.000,00) euro.

c) Foru dekretu honen IV. Kapituluko dirulaguntzen kasuan:

a) Asociaciones, fundaciones privadas y cooperativas de iniciativa social: un millón dieciséis mil (1.016.000,00) euros con cargo a la partida presupuestaria 0405 G/334104/45100, proyecto 2012/0024 del presupuesto para el año 2025.

b) Ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades: cuatrocientos veinte mil (420.000,00) euros con cargo a la partida presupuestaria 0405 G/334104/43299, proyecto 2012/0024 del presupuesto para el año 2025.

c) Las sociedades anónimas, sociedades de responsabilidad limitada, sociedades cooperativas, y las sociedades civiles (excepto las del artículo 1669 del Código Civil), como las personas físicas que ejerzan actividades profesionales y o empresariales, ciento dieciocho mil (118.000,00) euros con cargo a la partida presupuestaria 0405 G/334104/44300, proyecto 2012/0024 del presupuesto para el año 2025.

2. Este límite se distribuirá de la siguiente manera:

a) Para las subvenciones del capítulo II de este decreto foral:

Asociaciones, fundaciones privadas y cooperativas de iniciativa social: doscientos sesenta mil (260.000,00) euros.

Ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades: ciento setenta y siete mil (177.000,00) euros.

b) Para las subvenciones del Capítulo III de este decreto foral:

Asociaciones, fundaciones privadas y cooperativas de iniciativa social: setecientos cuarenta y un mil (741.000,00) euros.

Ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades: ciento cincuenta y cinco mil (155.000,00) euros.

c) Para las subvenciones del Capítulo IV de este decreto foral:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, kooperatiba-sozietateak eta sozietate zibilak (Kode Zibilaren 1669. artikulukoak izan ezik), hala nola jarduera profesionalak eta/edo enpresarialak egiten dituzten pertsona fisikoak: ehun eta hamazortzi mila (118.000,00) euro.

Sociedades anónimas, sociedades de responsabilidad limitada, sociedades cooperativas, y las sociedades civiles (excepto las del artículo 1669 del Código Civil), como las personas físicas que ejerzan actividades profesionales y/o empresariales: ciento dieciocho mil 118.000,00) euros.

d) Foru dekretu honen V. Kapituluko dirulaguntzen kasuan:

d) Para las subvenciones del Capítulo V de este decreto foral:

Elkarteentzat, fundazio pribatuentzat eta gizarte-ekimeneko kooperatibentzat: hamabost mila (15.000,00) euro.

Asociaciones, fundaciones privadas y cooperativas de iniciativa social: quince mil (15.000,00) euros.

Udalentzat, udal erakunde autonomoentzat eta mankomunitateentzat: hirurogeita hamazortzi mila (78.000,00) euro.

Ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades: setenta y ocho mil (78.000,00) euros.

e) Foru dekretu honen VI. kapituluko dirulaguntzen kasuan:

e) Para las subvenciones del capítulo VI de este decreto foral:

Udalentzat, udal erakunde autonomoentzat eta mankomunitateentzat: hamar mila (10.000,00) euro.

Ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades: diez mil (10.000,00) euros.

3. Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 43. artikuluaren 4. eta 5. zenbakien arabera, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru-agindu bidez, deialdia ebatzi baino lehen, aldatu ahal izango da. Erabilgarri dauden kredituen behin betiko adierazpena eta kredituen banaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, gastu-espedientean egin beharreko aldaketak egin ondoren, baina argitaratze horrek ez du ekarriko ez eskabide berriak aurkezteko epea zabaltzerik, ez ebazteko beste epe bat zenbatzen hasterik.

3. Dicha distribución tendrá carácter estimativo, y, de conformidad con los apartados 4 y 5 del artículo 43 del Reglamento de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia podrá modificarse con anterioridad a la resolución de la convocatoria mediante orden foral de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte. Se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia la declaración de créditos disponibles y la distribución definitiva, tras realizar los cambios que fueren necesarios en el expediente de gasto, sin que tal publicidad implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver.

4. Eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa bada, gastu-baimena deuseztatzea tramitatuko da, soberan den zenbatekoan.

4. Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante.

## II. KAPITULUA

## CAPÍTULO II

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Garrantzi bereziko kultur proiektuetarako dirulaguntzak

Subvenciones a proyectos culturales de especial trascendencia

21. oinarria. *Garrantzi bereziko kultur proiektuetarako dirulaguntzen xedea.*

Base 21. *Objeto de la subvención a proyectos de especial trascendencia.*

1. Dekretu honen arabera diruz lagundu daitezkeen garrantzi bereziko kultur proiektuak dira gutxieneko aurrekontu araztu hau dutenak:

1. Los proyectos culturales de especial trascendencia subvencionables conforme al presente decreto son aquellos que cuenten con un presupuesto depurado mínimo de:

a) Ehun eta hogei mila (120.000,00) euro, Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarteek, fundazio pribatuek, eta gizarte-ekimeneko kooperatibek garatu badituzte.

a) Ciento veinte mil (120.000,00) euros en caso de ser desarrollados por asociaciones, fundaciones privadas, y cooperativas de iniciativa social del Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Ehun eta hirurogeita hamabost mila (175.000,00) euro, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek eta mankomunitateek garatu badituzte.

b) Ciento setenta y cinco mil (175.000,00) euros en caso de serlo por ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades de ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Dirulaguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2025eko ekitaldiaren barruan gauzatu beharko dira eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

2. Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2025, y deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten elkarte eta fundazio pribatuek, edo gizarte-ekimeneko kooperatibek edo Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek, edo udalerrien mankomunitateek garatutakoak izatea.

a) Que sean organizados por asociaciones y fundaciones privadas, así como por cooperativas de iniciativa social que tengan domicilio social en el Territorio Histórico de Bizkaia o por ayuntamientos, organismos autónomos municipales o mancomunidades de ayuntamientos, todos ellos del Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Proiektua Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzea.

b) Que el proyecto se desarrolle en el Territorio Histórico de Bizkaia.

c) Proiektuek espezializazio edo berezitasun maila handia izatea, eta garrantzi handikoak izatea Bizkaiko Lurralde Historikoko kultur arlorako. Kultur eremu hauei egin behar diete erreferentzia:

c) Que los proyectos presenten un alto grado de especialización o singularidad y sean de especial trascendencia para el panorama cultural del Territorio Histórico de Bizkaia, debiendo hacer referencia a las siguientes áreas culturales:

1) Ikusizko eta ikus-entzunezko arteak.

1.º Artes visuales y audiovisuales.

2) Arte eszenikoak: antzerki-, dantza-, musika- edo zirku-ikuskizunak antzeztea, ematea edo eszenaratzea. Sarea ekimenaren barruan (Euskadiko Antzoki Sarea)

2.º Artes escénicas: representación, exhibición o puesta en escena de espectáculos de teatro, danza, música y circo, quedando excluida la programación anual de los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dauden Bizkaiko antzokien urteko programazioa kanpo geratzen da.

3) Kultura tradizionala (musika, dantza eta euskal folklorea).

4) Kultur gaiei buruzko ikerketa eta garapena.

5) Pentsamendua eta debatea.

6) Aldizkako argitalpenak editatzea (baldin eta ez badira doakoak eta ez badira beste argitalpen nagusi batzuen gehigarriak), baldin eta literaturari buruzkoak edo diruz lagunduko diren kultura-arloetako edozeini buruzkoak badira.

22. oinarria. *Garrantzi bereziko proiektuen ebaluazio-irizpideak.*

Kapitulu honen babesean aurkeztutako proiektuen ebaluazioa egiteko, beheko irizpideak eta haien haztapena hartuko dira kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

1. Proiektuak Bizkaiko kultur eskaintzari egiten dion ekarpena: kalitate, kultur eragin eta eragin sozialari dagokionez, proiektuaren garapenak Bizkaiko kultur eskaintzaren testuinguruan egingo duen ekarpena baloratuko da. Gehienez ere berrogei (40) puntu emango dira.

2. Kulturaren ikonoak diren udalerrietan garatzen direnez, Bizkaiko Lurralde Historikoko jarduera ekonomikoaren sortzaile garrantzitsuak diren kultur proiektuak. Gehienez ere hogeita zortzi (28) puntu emango dira, honela banatuta:

a) Bilbon garatzen diren proiektuei hogeita zortzi (28) puntu emango zaizkie.

b) Barakaldon, Basaurin, Getxon, Leioan, Portugaleten, Santurtzi eta Sestaon garatzen diren proiektuei hogeita lau (24) puntu emango zaizkie.

c) Gainerako proiektuei hogei (20) puntu emango zaizkie.

teatros de Bizkaia que forman parte de Sarea (Red de Teatros de Euskadi).

3.º Cultura tradicional (música, danza y folklore vasco).

4.º Investigación y desarrollo en temas culturales.

5.º Pensamiento y debate.

6.º La edición de publicaciones periódicas, (siempre que no sean gratuitas ni constituyan suplementos de otras publicaciones principales) que versen sobre literatura o cualquiera de las áreas culturales objeto de subvención.

Base 22. *Criterios de valoración de proyectos de especial trascendencia.*

La valoración de los proyectos presentados al amparo de este capítulo se efectuará conforme a los siguientes criterios y su correspondiente ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos, se establece como se señala a continuación:

1. Aportación del proyecto a la oferta cultural de Bizkaia: se valorará lo que supone la realización del proyecto en parámetros de calidad, impacto cultural e impacto social del proyecto en el contexto de la oferta cultural de Bizkaia: hasta cuarenta (40) puntos.

2. Proyectos culturales que por su desarrollo en municipios iconos de la cultura, son un importante elemento generador de la actividad económica del Territorio Histórico de Bizkaia: hasta veintiocho (28) puntos y según la siguiente distribución:

a) A los proyectos que se desarrollen en Bilbao se les concederán veintiocho (28) puntos.

b) A los que se desarrollen en Barakaldo, Basauri, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao: veinticuatro (24) puntos.

c) Al resto de proyectos: veinte (20) puntos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Proiektua herri batean baino gehiagotan garatzen bada, punturik gehien dagokion udalerrian garatutako moduan baloratuko da.

Cuando el proyecto se desarrolle en más de un municipio, se valorará como realizado en el municipio al que corresponda mayor puntuación.

3. Proiektuaren finantzazio maila, jarduerak berak sortzen dituen sarreren bidez eta beste babesle publiko eta pribatuen ekarpenen bidez: 25 puntu, gehienez.

3. Nivel de financiación del proyecto mediante la generación de ingresos propios de la actividad y la aportación de otros patrocinadores públicos y privados: hasta 25 puntos.

Kasu honetan, proiektuaren aurrekontua abiapuntutzat hartuta, kalkulatuko da aurrekontuaren zein ehuneko diren jardueraren berezko diru-sarrerak eta beste babesle publiko eta pribatuek ekarpenak. Ondorioz, ratio horretan baliorik handiena lortzen duen eskatzaileari emango zaio puntuaziorik altuena, hau da, 25 puntu, eta gainerakoen puntuazioa hirukotearen erregela erabiliz lortuko da. Lortutako puntuazioan zenbaki hamartarrik egonez gero, zenbaki oso hurbilenera biribilduko da puntuazioa.

En este caso, y partiendo del presupuesto del proyecto, se calcula el tanto por ciento que sobre el mismo representan los ingresos propios de la actividad y la aportación de otros patrocinadores públicos y privados. Se otorga entonces el máximo de 25 puntos a la solicitante que obtiene un mayor valor en dicha ratio, concediéndose al resto la puntuación resultante de la aplicación de una regla de tres. En el caso de que la puntuación obtenida tenga decimales, se redondeará al número entero más cercano.

4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako helburuak eta jarduera espezifikoak sartzea kultur proiektuan: 5 puntu, gehienez. Puntuak honela graduatuko dira:

4. Inclusión en el proyecto cultural de objetivos y sus correspondientes actuaciones específicas encaminadas a promocionar la igualdad entre mujeres y hombres: hasta 5 puntos. Los puntos se graduarán de la siguiente manera:

1) Helburu bat eta dagozkion jarduketa espezifikoak sartzen direnean kultur proiektuan: 3 puntu.

1.º Cuando en el proyecto cultural se incluya un objetivo y sus correspondientes actuaciones específicas: 3 puntos.

2) Helburu bat baino gehiago eta dagozkien jarduketa espezifikoak sartzen direnean kultur proiektuan: 5 puntu.

2.º Cuando en el proyecto cultural se incluyan más de un objetivo y sus correspondientes actuaciones específicas: 5 puntos.

5. Kultur proiektua genero-ikuspegia kontuan hartuta eta/edo hizkuntza inklusiboa erabilita idazten denean: 2 puntu.

5. Cuando el proyecto cultural se redacte teniendo en cuenta la perspectiva de género y/o con utilización de lenguaje inclusivo: 2 puntos.

6. Proiektu guztiek finantzaketa propioa izan behar dute, hain zuzen ere, aurkeztutako aurrekontuaren % 25ekoa, gutxienez. Finantzaketa propioa hau da: erakundeak bere baliabideen bidez eta beste iturri publiko edo pribatu batzuen bidez (Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen zaiona kenduta) lortzea aurreikusten duena.

6. Todos los proyectos deberán contar con un nivel de financiación propia de al menos el 25 % del presupuesto presentado. Se entiende por financiación propia la que la entidad prevea obtener de sus propios recursos, y de distintas fuentes, públicas o privadas, excluida de dicho cómputo la aportación que se solicita a la Diputación Foral de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Epaimahaiaren iritziz gutxienez 70 puntu lortzen ez dituzten proiektuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

Los proyectos que a juicio del tribunal no alcancen un mínimo de 70 puntos no serán beneficiarios de subvención.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren % 75 izango da (behin diruz laguntzekoak ez diren kontzeptuei dagozkion arazketak eginik).

El importe máximo de la subvención será del 75 % del presupuesto depurado del proyecto presentado, una vez realizado al mismo las pertinentes depuraciones de conceptos no subvencionables.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da inola ere 59.000,00 eurotik gorakoa izango, ezta onuradunak eskatutako zenbatekoa ere.

En ningún caso, el importe máximo de la subvención superará los 59.000,00 euros, ni el importe solicitado por la beneficiaria.

## III. KAPITULUA

## Kultur intereseko proiektuetarako dirulaguntzak

## CAPÍTULO III

## Subvenciones a proyectos de interés cultural

23. oinarria. *Kultur intereseko proiektuetarako dirulaguntzen xedea.*

Base 23. *Objeto de las subvenciones a proyectos de interés cultural.*

1. Kapitulu honen arabera diruz lagundu daitezkeen kultur intereseko proiektuak dira balio artistikoa eta sortzailea dela medio Bizkaiko kultur eskaintzari ekarpen garrantzitsua egingo diotenak, udalerritik kanpo ere eragina dutenak eta gutxieneko aurrekontu araztu hau dutenak:

1. Los proyectos de interés cultural subvencionables conforme al presente capítulo son aquellos cuyas actividades que, por su valor artístico y creativo, supongan una importante aportación a la oferta cultural Bizkaia, tengan un alcance que supere el marco municipal, y cuenten con un presupuesto depurado:

a) Hamar mila (10.000,00) euro edo hortik gorakoa, eta ehun eta hogei mila (120.000,00) baino gutxiagokoa Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarteek, fundazio pribatuek, eta gizarte-ekimeneko kooperatibek garatu badituzte.

a) Igual o superior a diez mil (10.000,00) euros, e inferior a ciento veinte mil (120.000,00) euros en caso de ser desarrollados por asociaciones, fundaciones privadas, y cooperativas de iniciativa social del Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Hamabost mila (15.000,00) euro edo hortik gorakoa, eta ehun eta hirurogeita hamabost mila (175.000,00) euro baino gutxiagokoa Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek, eta mankomunitateek garatu badituzte.

b) Igual o superior a quince mil (15.000,00) euros, e inferior a ciento setenta y cinco mil (175.000,00) euros, en caso de serlo por ayuntamientos, organismos autónomos municipales, y mancomunidades de ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Diruz lagundu daitezke 2025eko ekitaldian Bizkaian garatzen diren kultur intereseko proiektuak, kultur arlo hauetakoak badira:

2. Serán objeto de subvención los proyectos de interés cultural que se desarrollen en Bizkaia durante el ejercicio 2025 y, que se refieran a las siguientes áreas culturales:

a) Arte eszenikoak antzerki, dantza, musika edo zirku ikuskizunak antzeztea, ematea edo eszenaratzea. Sarea ekimenaren barruan (Euskadiko Antzoki Sarea) dauden

a) Artes escénicas: representación, exhibición o puesta en escena de espectáculos de teatro, danza, música y circo, quedando excluida la programación anual de los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko antzokien urteko programazioa kanpo geratzen da.

b) Folklorea.

c) Kultur ikerketa eta garapena.

d) Ikusizko eta ikus-entzunezko arteak.

e) Pentsamendua eta debatea.

f) Aldizkako argitalpenak editatzea (baldin eta ez badira doakoak eta ez badira beste argitalpen nagusi batzuen gehigarriak), baldin eta literaturari buruzkoak edo diruz lagunduko diren kultura-arloetako edozeini buruzkoak badira.

24. oinarria. *Kultur intereseko proiektuen ebaluazio-irizpideak.*

Aurkeztutako proiektuen ebaluazioa egiteko, beheko irizpideak eta haien haztapena hartuko dira kontuan. Gehienez, ehun (100) puntu emango dira, honela banatuta:

1. Proiektua zer diziplina kulturaletan sartzen den eta zer ezaugarrik egiten duten aberatsago: Hogeita hamahiru (33) puntu, gehienez.

Irizpide honen ebaluazioa eta puntuen banaketa honela egingo dira:

a) Diziplina guztiei hemezortzi (18) puntu emango zaizkie, interes berezikoei izan ezik: azken horiei hogeita bost (25) puntu emango zaizkie.

Diziplina hauek hartuko dira interes berezikotzat: organo musika, euskal kultura tradizionala, dantza klasikoa, dantza garaikidea, joera berriak, debatea eta pentsamendua, musika garaikidea, antzezpen popularrak eta literatura.

b) Gainera, proiektuaren inguruabar zein ezaugarri hauek ere ebaluatuko dira:

teatros de Bizkaia que forman parte de Sarea (Red de Teatros de Euskadi).

b) Folklore.

c) Investigación y desarrollo cultural.

d) Artes visuales y audiovisuales.

e) Pensamiento y debate.

f) La edición de publicaciones periódicas, (siempre que no sean gratuitas ni constituyan suplementos de otras publicaciones principales) que versen sobre literatura o cualquiera de las áreas culturales objeto de subvención.

Base 24. *Criterios de valoración de proyectos de interés cultural.*

La valoración de los proyectos presentados se efectuará conforme a los siguientes criterios y su correspondiente ponderación, que, sobre un máximo de cien (100) puntos, se establece como se señala a continuación:

1. Disciplina cultural en la que se inscribe el proyecto y características que lo enriquecen: hasta treinta y tres (33) puntos.

La valoración de este criterio y el reparto de puntos se hará como sigue:

a) Todas las disciplinas obtendrán dieciocho (18) puntos, excepto las de especial interés, que se dotarán con veinticinco (25) puntos.

A estos efectos se entiende por disciplinas de especial interés: la música de órgano, cultura tradicional vasca, danza clásica, danza contemporánea, nuevas tendencias, debate y pensamiento, música contemporánea, representaciones populares y literatura.

b) Además se valorarán las siguientes circunstancias o características del proyecto:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: DZIQ-0YHZ-320F-WQZJ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1) Bi (2) puntu, urteurren hauetako bat denean: 25, 50, 75 eta 100.

1.º Dos (2) puntos, cuando se trate de los siguientes aniversarios: 25, 50, 75 y 100.

2) Bi (2) puntu, proiektuak beste jarduera batzuk ere baditu, berez proiektu kulturalari lotuta ez daudenak baina hura indartu edo osatzeko balio dutenak.

2.º Dos (2) puntos, cuando el proyecto lleve aparejadas otras actividades, ajenas al proyecto cultural, que lo refuercen y lo complementen.

3) Bi (2) puntu, proiektua lau egunean zehar edo egun gehiagotan egiten bada.

3.º Dos (2) puntos, cuando el proyecto se desarrolle a lo largo de 4 o más días.

4) Bi (2) puntu, proiektu berritzailea edo diziplinartekoa bada.

4.º Dos (2) puntos, cuando el proyecto sea considerado innovador o interdisciplinario.

2. Proiektuak Bizkaiko kultur eskaintzari egiten dion ekarpena: Hogeita hamar (30) puntu, gehienez.

2. Aportación del proyecto a la oferta cultural de Bizkaia: hasta treinta (30) puntos.

Kalitateari, kultur eraginari eta eragin sozialari dagokionez, proiektuaren garapenak Bizkaiko kultur eskaintzaren testuinguruan egingo duen ekarpena baloratuko da.

Se valorará lo que supone la realización del proyecto en parámetros de calidad, impacto cultural e impacto social del proyecto en el contexto de la oferta cultural de Bizkaia.

3. Proiektua garatzeko lurralde-eremua, kultura-eskaintzaren lurralde mailako oreka ahalbidetzeko: Hogei (20) puntu, gehienez.

3. Ámbito territorial de desarrollo del proyecto en aras a favorecer el equilibrio territorial de la oferta cultural: hasta veinte (20) puntos.

Eskala honen arabera banatuko dira puntuak:

La distribución de puntos se realizará según la siguiente escala:

5.000 biztanle arteko udalerrietan garatu beharreko proiektuak: 20 puntu

Proyectos a desarrollar en municipios de hasta 5.000 habitantes: 20 puntos

5.001etik 20.000ra: 15 puntu

De 5.001 a 20.000: 15 puntos

20.001etik 50.000ra: 10 puntu

De 20.001 a 50.000: 10 puntos

50.000 puntu baino gehiago: 5 puntu

Más de 50.000: 5 puntos

